

«Igeriketa kirol oso gogorra da,
ordu gehiegi egin ohi dira»



MIKEL BILDOSOLA
AGIRREGOMEZKORTA
Europako igeriketa-txapelduna

hiruka

135. zenbakia

2018ko irailaren 27tik urriaren 3ra arte

ALANGO ETA AIBOA | 4

GUNE BIAK LOTZEKO IBILBIDEAK EGOKITUZ

Algortako Alango ingurua eta Aiboa metro-geltokiaren arteko bideak egokitu eta berri bat egiteari ekin dio Getxoko Udalak.

TXORIERRIKO IGOGAILUA | 5

DABORDUKO OBRAK HASI DITU LEIOAKO UDALAK

Lamiako eta Txorierri arteko igogailua egitea onartu zutenetik ia 13 urte igaro dira. Bederatzi hilabetea amaitzea espero dute.

PLENTZIA ETA GORLIZ | 6

HIRI UDATJARREN EGOERA, AZTERBIDE

Udatjarrek herri bi horietan eragiten dituzten «arazoen» nondik norakoen inguruan hausnartu dute hainbat lagunek.

HIRUKIRA OLGETAN | 8-9

UMEENTZAKO DENBORA-PASAK

Hilabeteroko azken zenbakian ohi den legez, umeentzako jolasen atala topatuko duzue aldizkariaren erdiko orrialdeetan.



Lamiako, Ibaizabalgo azken hezegunea

Urbanizatze-mehatxua momentuz alboratuta, Lamiakoko ibarra kontserbatzeko pausoak emateko garaia da. Udala ingururako plan bat prestatzen dabilen honetan, ekologistek itsasadarreko errepidea suntsitzeko eskatzen dute, mareek ibar osoa beregana dezaten.

Gotorleku bat natura

Zer balio du guneak?

Gaur egun balio ekologiko eskasa du Lamiakoko ibarrak. Txikia denez, berreskuratzeak ez luke izugarrizko inpaktua ingurumen aldetik, baina heziketa-gune interesgarria litzateke, eta balio sinboliko handia ere edukiko luke.

Aspaldiko eskaria

Lamiakoko Ibarraren Defentsarako Plataforma 2003an hasi zen gunea kontserbatzeko neurri eske. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak maiatzean baztertu zuenetik bertan makro-araztegi bat eraikitzea, hurbilago dute helburua.

Udalaren esku

Abuztuan, Leioako agintariek ibarrerako plan paisajistikoa garatzeko asmoa agertu zieten ekologistei. Xehetasunik ez da zabaldu oraindino, baina hainbat hedabidetan aipatu da itsasadarreko errepeidea itxiko lukeela Udalak.


Hegaztien «geltokia»

Kantauri itsasoko itsasadar guztiak, baita Ibaizabalgoa ere, egokiak dira migrazioa egiten duten hegaztientzat. Atsedean hartu eta elikatzeko pausaguneak dira, eta kasu batzuetan negu osoa igarotzen dute hemen, bertoko espezieakaz batera.



Errepidea kendu

Ekologistek itsasadarreko errepeidea eraisteko eskatzen dute, marea ibarrera sartu dadin. Era berean, lurra kendu eta urak berak paisaia birmolda dezala gura dute. «Lasai utziz gero, naturak berrosatzeko gaitasuna du», azaldu dute. Oinezko eta bizikletentzako pasabidea eraikiko litzateke, eta auto-trafikoa Felipe del Río kalera eroan.



rentzat

Ahalegindu zaitez Urdaibai erraldoi bat irudikatzen. Halakoxea izango zen Ibaizabal itsasadarra, urbanizatzek natur arrasto gehienak desagerrarazi arte. Lamiakoko ibarraren zati bat da iraun duen guneko bakarra; oraintsu arte mehatxupean egon ostean, biziraupenerako atea zabaldu zaio berriki.

TESTUAK: UNAI BREA INFOGRAFIA: ARTEFAKTO ARGAZKIAK: HODEI TORRES ▶

Erabilera pribatuak

Erakundeek ez digute argitu nortzuk diren ibarreko eremuen ugazabak. Zelangura, erabiltzaile pribatuak egon badaude gaur egun, eta zenbait gunetan hondakin ugari ikus daiteke, baita igarotzea galarazten duten ateak ere.



PONPAKETA-ESTAZIOA

INDUSTRIA-GUNEA

KALEA



Landare inbaditzaileak

Panpa-lezka (*Cortaderia selloana*) da erregina Lamiakoko ibarrean. Espezie inbaditzaile arrakastatsua da, bertoko baliokideei lekua kentzen iaioa. Sasi-akazia (*Robinia pseudoacacia*) ere aipa genezake Lamiakon ikus daitezkeen artean.



Juncus acutus

Espezie autoktonoen artean, *Juncus acutus* espezieko ihia da azpimarragarrienetako bat, Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan dago eta. Ekologisten esanetan, Ibaizabal osoan Lamiakoko ibarrean baino ez dago espezie hori.

GETXO | Hirigintza

Alango eta Aiboa lotzeko ibilbideak hobetu guran

Alango eta Aiboa artean gaur egun dauden bideak oinezkoentzat egokitzeaz gainera, bide berriak finkatuko dituzte. Parke berri bat ere egingo dute, Neguri eta Algortaren arteko lotura bermatzeko.

IKER RINCON MORENO ►

Algortako Alango auzoaren eta Aiboako geltokiaren arteko ibilbideak hobetzeko eta finkatzeko lanak abiatu berri ditu Getxoko Udalak. Arduradunek azaldu duteenez, inguru horretan dauden oinezkoentzako ibilbideen baldintzak hobetzea eta berriak egokitzea da helburua; alegia, Aiboako metro-geltokiaren eta Foru kalearen artean. Inguruko auzokideen aspaldiko eskaera izan da hori, gaur eguneko bideak zaharkituta daudelako eta tarte batzuetan arrakalak dituztelako, besteak beste.

Joan den egunean, hilaren 19an, abiatu zituzten lanak. Aiboako metro-geltokiaren inguruan obra-txabolak ipintzeaz hasi dituzte lanak eta obra-zuinketa egingo dute. Lanok egiteko epea hamasei astekoa izango da, baina iragarri dute aldaketak egon daitezkeela «eguraldiaren baldintzen arabera». Joseba Arregi Hirigintza zinegotziak adierazi duenez, oinezko pasabide horiek hobetzeko eta finkatzeko lanak hasita eta Aiboako geltokia Miguel Beascoa kalea (zahar-egoitzaren inguruan) lotuko dituen igogailu berriaren instalazioa eginda (horren lanak 2018. urtea amaitu baino lehen esleitu dira), «beste urrats bat egingo dugu aurrera, Aiboa-Alango-Arene esparru publikoa egokitzeke Plan integrala gauzatzeko bidean; honako premisa hauek ditu egitasmoak: irisgarritasun unibertsalaren, aisialdiaren eta jolas-eremuen hobetze mekanikoa eta zirkulazioa lasaitzea».

Abiatu duten jarduketarik garrantzitsuenak oinezkoen pasabideak hobetzea da, Aiboa eta Alango arteko lotura berria ekarriko baitu, Neguri eta Algorta artekoa, alegia. Gainera, parke berri baten bitartez egingo dutela jakinarazi dute. Gune zabal horrek zalantzak sortu ditu hainbat herritarren artean, Udalak ez duelako argitu inguru horretan gaur egun dagoen gune berdea mantenduko duten edo ez. Gaiaz galdetuta, udal-ardu-



Inguruko zuhaitzietan balioa emateko jarduketa egingo dute, bertan jendea egoteko eremu modura atonduz.

radunek azaldu dute Aiboako metro-geltokiaren ondoan dagoen arte eta eukaliptoen basotxoak ez dela ukituko. Horrez gainera, jakinarazi dute inguruko zuhaitzietan balioa emateko jarduketa egingo dutela eta bertan jendea egoteko eremu modura atonduko dutela, «zuhaitzez inguratutako guneak bultzatu nahi direlako».

AZKEN LANEI ERREPASOA. Orain arte egindako lanei dagokienez, Euskal Herria eta Txakursolo kaleen artean zirkulazioa lasaitu eta segurtasuna hobetzeko lanak dagoeneko amaituta daude, baita Euskal Herria eta Foru kaleen elkargunekoa ere, biribilgune berri bi eraikita; gainera, errotonda horien arteko errodadura hobetu da, Udalaren esanetan. Juan Bautista Uribarri kalea zabaltzeko lanak amaitu egin dituzte, Iturribarri parkeko oinezkoen ibilbideak zabalik daude eta laugarren igogailuko lanak urrian hasiko dituzte berriro, prefabrikatutako piezak entregatzeko egunaren zain egon eta gero. Alango aldeko igogailuek dituzten piezak berdinak dira. ◀

On-line denda

Bio Zelai

www.biozelai.com

Elikagai ekologikoak

Ekoizleak eta banatzaileak

Etxez etxeko zerbitzua

info@biozelai.com | T: 685.798.567 | GATIKA (Bizkaia)

Ezagutu gaitzazu!!!

Yes

BAI

Areeta, Leioa, Berango, Sopela

Guarderia

Antokia

Antokia

Antokia

Antokia

Antokia

Antokia

Algorita

San Nikolas IKASTOLA

SAN NIKOLAS IKASTOLA (Arene azpi, 15)

94 430 54 78

www.sanikolas.eus

LEIOA | Txorierriko igogailua

Lanak hasi dituzte, azkenik

Udalbatzak 2006an onartu zuen Lamiako eta Txorierri arteko igogailua egitea; lanak hasita daude eta bederatzai hilabetean amaitzea espero dute.

KEPA UGARTE MARTIARENA • ALAZNE PALACIOS ►

Karmelo Sainz de la Maza jeltokia alkate zela, Leioako Udalbatzak 2006ko otsailaren 23an onartu zuen Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) behin-behinean aldatzea, Lamiako eta Txorierri lotuko zituen igogailua eraiki ahal izateko. Hamabi urte eta erdi baino gehiago igaro da geroztik.

Mari Carmen Urbietta alkateak eta Iban Rodriguez Etxebarria alkateorde eta Hirigintza zinegotziak irailaren 20an aurkeztu zuten azpiegitura horren lanen hasiera. Rodriguezen berbetan, «hasierako obrak Eusko Jaurlaritzak egin behar zituen, baina eguraldia dela-eta lan horien amaiera atzeratu egin zen. Amaitzeaz zeudela gu bigarren ataleko lizitazioa hasi genuen, jarraian guri dagozkigun obrei hasiera emateko».

Hirigintza zinegotziak esandakoari jarraiki, Eusko Jaurlaritzak 2016ko azaroaren 14an ekin zion eremu horretako urbanizazio-lanen lehenengo faseari. Langileria kalearen eta Txorierri auzoaren arteko etorkizuneko igogailua eraiki ahal izateko ezinbesteko lanak ziren horiek. Lanok hainbat instalazio-sare desbideratuz hasi ziren, Ramon Rubial plazan bertan eta Txorierri auzoaren hegoaldean; izan ere, mendi-hegaleko lanak hasi teko aurreko pausoak ziren horiek.

ETXE-UGAZABAKAZ ARAZOAK. Eusko Jaurlaritzari zegozkion lehenengo urbanizazio-lanak. 2016ko hasierarako, maldan gora, igogailua ipini behar duten lekuan zeuden hiru etxetatik bi botata zeuden, Etxebizitza Sailak uga-



Lamiakoko metro-geltokiaren aurrean egongo da Txorierriko igogailua. HODEI TORRES

Ezaugarriak

- 47 metroko desnibela gaindituko du.
- 113 metroko ibilbide horizontala.
- 22,5 graduko inklinazio-angelua.
- 25 pertsonarentzako lekua.
- Orduko, joan-etorriko zortzi bidaia.
- Gehienez 400 pertsona garraiatuko ditu orduko.
- Bidaia minutu biko iraupena dauka.

zabakaz hitzarmena lortu ostean. Hala ere, 2017ko ekainera arte ez zuten akordiora lortu Eusko Jaurlaritzak eta Langileria kaleko 80. zenbakian bizi den familiak. Udala igogailua ipintzen hasi baino lehen urbanizazio-lanak amaituta izan behar zituen Gasteizko gobernuak, agintari leioaztarrek orduko hartan gogorarazi zuten. Baina Iban Rodriguez Hirigintza zinegotziak azaldu legez, horiek ez ziren arazo bakarrik izan Eusko Jaurlaritzak egin beharreko lanak atzeratzeko.

BEDERATZI HILABETE. Oztupoak oztopo eta atzerapenak atzerapen, daborduko igogailua ipintzeko lanak hasi ditu Leioako Udalak. Agintari leioaztarrek azaldu dutenez, inbertsioa 2,1 milioi eurokoa izango da. Rodriguezek esan duenez, «proiektuaren arabera bederatzai hilabete barru amaituko dugu, dena ondo joanez gero». ◀

Herritarren iritzia



«Hil egingo naiz eta ez dut igogailua eginda ikusiko. Ez naiz inoiz hara gora igo»

JULIA SANTÍN DOMÍNGUEZ
88 URTE



«Lanak hasita daude, erdi eginda dago; baina auskalo noiz amaituko duten»

MAITE ARRONDO IZQUIERDO
57 URTE



«Auzo hau abandonatuta dago; igogailua dela eta, auzoa hiltzen utzi dute»

ELENA JUEZ ALBIZU
74 URTE



«Txarto eta berandu. Herritarrek premia ikaragarria daukate»

MARCELINO GUTIÉRREZ DÍAZ
67 URTE

BETIKO
IKASTOLA

KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKARAZ

KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak: Konfiantzaren pedagogia, EKI, KiVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.

www.betikoikastola.eus
Artatza auzoa, 84 (48940) Leioa
info@betikoikastola.eus
94 464 23 64

ikastolenkartea

AITOR GARAGARZA · ANDREA EGOZKUE · ESTEBAN SERRANO | Plentzia eta Gorlizko auzokideak, udatiarren inguruan berbetan

«Ez dugu udatiarren kontra egiten; herri-eredua da zalantzan jartzen duguna»

Udatiarrek Plentzia eta Gorliz udalerrietan eragiten dituzten «arazo» nondik norakoan inguruan hausnartu zuten irailaren 19an Danontzat gaztetxean, Tosutik Uribe Kostara, porlan azpiko lurra irautilz jardunaldietan.

IKER RINCON MORENO ▶

Uda garaian populazioa asko hazten da Plentzia eta Gorliz. Zelakoa da hazkunde hori? Plentzia eta Gorliz bosna mila pertsona inguru daude erroldatuta, eta uda sasoian 20.000 inguru egoten dira bakoitzean; hau da, biztanleria laukoiztu egiten da. Horri, gainera, gehitu egin behar diogu asteburuetan etortzen jendea; asko izaten da hori ere.

Zer-zelako eragina du horrek bertako auzokideen eguneroko bizimoduan? Asteburuetan egun-pasa datozenen ondorioz ematen da masifikazioa. Udatiarrek, oster, beste hainbat ondorio eragiten dituzte. Onura batzuk dakartzate, bai; baina trafikoa handitu eta hainbat zerbitzu kolapsatzen dituzte ere, hala nola zaborraren biltzea eta anbulatorioa. Udatiarrek OHZ soilik ordaintzen dute hemen. Aldiz, bertokook zerga gehiago ordaintzen ditugunez, geu gara euren zerbitzuak ordaintzen dizkiegunak.

Horri erantzunez, esan ohi da behin-behineko «etorkin» horiei esker etekinak lortzen dituztela udalerrietako merkatariek eta ostalariek... Uste dugu hori zelanbait idealizatuta dagoela. Badaude etekin handiak lortzen dituzten komertzioak udan, baina beste batzuek, txikiek batez ere, alokairuen prezioen igoera neurrigabeei aurre egin behar izaten diete. Gainera, udaldian sortzen diren lanpostuak prekarioak izaten dira, gazteei begirakoak. Iraupen motzeko kontratuak izaten dira, eta badaude kontratu barik lan egitera behartuta daudenak ere, edo lan-ordu gehigarriak kotizatu ezin dutenak ere. Gazteoi ez digu dirurik ematen jendea hona etortzea.

Alokairuei dagokien, alde handia dago udaldian eta gainontzeko hilabeteetan. Bai, normalean irailetik ekainera bitartean alokatzen dituzte eta, gero, udan prezioak igotzen dituzte. Adibidez, orain Plentzian PIEa dagoenez [EHUren Itsas Estazioa], askotan ikasleei alokatzen dizkiete pisuak, ondoren udaldian



Hiri udatiarren problematikaren nondik norakoak ezagutzeko testuingurua ulertu behar dela diote gazteek. HODEI TORRES

Masifikazioa

«Asteburuetan egun-pasa datozenen ondorioz ematen da masifikazioa. Udatiarrek, oster, hainbat zerbitzu kolapsatzen dituzte»

Alokairua

«Etxebizitzaren alokairua asko garestitzen da udan. Batzuetan, gainera, ezinezkoa izaten da urte osorako alokairu bat lortzea»

beste batzuei askoz ere garestiago alokatzeko. Horrek eragin handia du gazteek emantzipatzeko orduan: udatiarrek bigarren etxea darabilte eta sarri familia horietako gazteek etxe horiek erabiltzen dituzte bizitzeko. Ondorioz, bertokook askotan kanpora joan beharra izaten dugu bizitza-proiektua garatzeko, etxe horiek beteta daudelako.

Joan den eguaztenean Plentzian izandako berbaldiak «Bil-bainos go home?» zuen izena, galdera ikurragaz. Ondorioen batera heldu zineten? Egoera ezin da sinplifikatu, udatiarren eta herritarren artean gatazka bat egongo balitz bezala. Horren atzean badago gauza asko. Guk herri-eredua bera ipintzen dugu zalantzan. Ez dugu udatiarren kontra egiten, eta kalte handia egiten du egoera testuinguruan ez ipintzeak. Galdera bera Tosu Betirako taldeak proposatu zuen jendearen arreta piztu guran, besterik ez, ahalik eta jende gehiagoren artean eztabaidatzeko eta hausnartzeko. Jende nahikotxo etorri zen berbaldira, ideia ezberdinak zituzten pertsonak etorri ziren eta diskurtsoa nahiko eraikitzailea izan zen. Kontuan hartu beharra dago gure nahia duintasunez bizitzea dela. ◀

TAPAK TABERNA

Ostegun, bariku eta zapatuetan
20:00etatik-23:00ak arte
PIZZA goxo-goxoak!
...eta gero jai giroa!

SANTA EUGENIA KALEA, 13
ERROMO

Uribe Kostako gazteria saltsan!!

GetxoGas

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

944 301 500

GetxoGason Euskararekin bat! Getxo eta Berango artean

URIBE KOSTA | Basogintza

Bizkaiko pinuak, arrisku bizian

Pinuen osasuna guztiz kaltetzen duen onddoa hedatzen dabil Bizkaia osoan, ekialdetik mendebaldera. Ingururik kaltetuen Lea Artibai da, baina Uribe Kostara ere heldu da gaitza. Gaixotasunari aurre egiteko hainbat saiakera egin diren arren, oraindino ez dute irtenbiderik aurkitu.

IKER RINCON MORENO ▶

Bizkaiko pinuak gaixo dabilta, *Lecanosticta acicola* onddoaren eraginez. Zuhaitzak sikatu egiten dira apurka-apurka, hil arte. Hala, kolore berde biziz janzten ziren eremuetan marroi eta okre hitsa ageri dira. Izan ere, inguruotako mendietan nagusi den zuhaitz espeziea da *pinus radiata*, Ipar Amerikatik duela 100 urte pasatxo gura heldu zena. Eta, Bizkaian soilik, 67.000 hektarea pinudi dago gaixotasun horren mehatxupean, hau da, lurralde historikoaren azaleraren herena.

Bizkaiko Basozainak Elkarteak jakinarazi duenez, gaixotasun horrek *pinus radiata*-ri eragiten dio gehien, baina beste espezie batzuk ere gaixotzen dabilta onddoaren eraginez, hala nola larizio pinua. Azaldu dutenaren arabera, Lea Artibai eskualdean dago hedatuen gaixotasuna, baina Uribe Kostan ere kaltetutako zuhaitzak ikus daitezke. Argitu dutenez, hemen ez da askorik hedatu momentuz, pinuak baino zabalduago daudelako eukaliptoak. Hala ere, banda gorria edo marroia izenagaz



Lecanosticta acicola onddoa

Pinuen hostoei kolore marroia eman, landarearen hazkuntza gelditu eta zuhaitza hiltzeraino ailega daiteke.

ezagun den gaixotasuna ia Bizkaia osotik hedatu da, Arratia-raino. «Azkenengo kalkuluen arabera, Bizkaiko pinuen herena jota dago», azaldu dute basozainek.

KUDEAKETA EGOKI BATEN BEHARRA. Askotariko saiakerak egin dira gaitzari aurre egiteko, baina Bizkaiko Basozainak Elkarteak azaldu duenez, ez da nahikoa izan. Hainbat adituk arazoari aurre egiteko alternatiba bat proposatu dute: eukaliptoak landatzea pinuen ordeiz. Horren aurrean, basozainek salatu dute mota horretako monolaborantzek askotariko arriskuak ekarri ditzaketela: «Bertako berezko basoa, fauna eta landare espezieak bere baitan hartzeko egokia da, eta pinudi heldu bat espezie horien behin-behineko habitat bilaka daiteke, baina eukaliptoek ez daukate gaitasun hori». Are gehiago, deitoratu egin dute zuhaitz mota horiek biodibertsitatea pobretzen dutela berez: «Hemen eukaliptoaren aldeko apustua egitea gure ingurumenak duen aberastasunaren aurkako mehatxu larria litzateke».

Hori dela eta, Bizkaia eukaliptoz betetzea izango ez den bestelako irtenbide bat topatzea eskatu diete basozainek administrazio publikoei eta instituzioei. «Horretarako, behar-beharrezkoa iruditzen zaigu bertako berezko baso-espezieen eta espezie horien dibertsifikazioaren alde apustua egingo duen basogintza-politika argi eta sendoa abiaraztea, izaera berreskuratzaila eta kontserbaziozkoa edo ekoizpenezkoa izango duena, edo izaera horiek guztiak elkarrekin integraturik hartuko dituen», azaldu dute. ◀

GETXOARTE

El Respiradero

Olatz Crespo · Beatriz Setién · Elena Aitzkoa · Oihana Altube & Javier Vaquero · Dani Hernández & Abraham Hurtado & Alberto Alonso · Aimar Pérez Galí & Jaime Conde Salazar · Marc Vives · Spoken Word Bilbao · Irati Inoriza · Laura Llanelli · Alexander Arilla Velázquez · serpiente · Marion Cruza · Mar Reykjavik · Luz Prado · L—R · Horman Poster · Colectivo Qualquer · Equipo Jeleton · Joan Morey & Candela Capitán · Javier Martín · Niño de Elche · Antes Collado

06—07.X

PROGRAMA ESZENIKOA
PROGRAMA ESCÉNICO

AREETAKO GELTOKIA PLAZA
10.06/ 10.00 - 22.00
10.07/ 10.00 - 14.00 — 16.30 - 20.00

PLAZA ESTACIÓN LAS ARENAS
06.10/ 10.00 - 22.00 h.
07.10/ 10.00 - 14.00 h. — 16.30 - 20.00 h.

Antolatzaileak / Organizadores:



Babesleak / Patrocinadores:



Laguntzailea / Colaborador:



Hirukira olgetan

SOLUZIOAK:



Aireportuan

Aireportuetan gauza asko gerta litezke 30 segundoan. Ikusten duzu zer alde dagoen irudi batetik bestera? 22 diferentzia daude, topa itzazu!



Igerilkuan, lasai ederrean



Neska gazte honek Amaia du izena. Ikusten duzu igerilekuan? Ainhoa ere aurkitu behar zenuke, Amaiaaren ahizpa bikia da.



Tira! Hori kasualitatea! Maider ere hemen da, Amaiaaren eta Ainhoaren lehengusina, eta horrek ere badu ahizpa bikia.



Eta mutiko hau Julen da, Eiderren eta Maiderren laguna. Igeriketan ez da oso trebea... Non ote dago?



Igeritokiko debekuen arabera, bada araua betetzen ez duenik?



Labirintoa

Zein bide egin beharko dute txirrindulariek dauden lekutik abiatu eta helmugara heltzeko?



Lehiaketa **Non dago?**



Uribe Kostako irudi honetan zer ageri den igarritz gero, alboko sariak irabaziko dituzu.

Argazkia NON egindakoa den badakizu?



Saria

Antzezlanen gozatzeko sarrera bikoitzak

Getxoko Kultur Etxeari esker 36. Antzerki Jardunaldietako umeentzako antzezlanetara joateko sarrerak irabazi gura badituzu, urriaren 3a (eguzteina) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

ERANDIKO EUSKARA ZERBITZUA
AISELA DIA EUSKARAT

ZAPATUTAN

Familiarentzako ekintzak

EKINTZA GUZTIAK 13:00ETAN
Argibide gehiago eta izena emateko:
www.erandiako.euskarazerbizua.eus

Inskripzioak online:
Tailer bakartzaren aurreko astelehenera arte

ERANDIKO EUSKARA ZERBITZUA
EUSKARA@ERANDIO.EUS
94.489.0128

Zehu mugatuta EUSKARAZ!
4 urtetik gora + heldu bat

Logos: EI, Bizkaia, etc.

Euskaraz ez dakiten gurasoentzako tailerrak

Euskara ikasi zure seme-alaben eta ipuinen laguntzarekin

- Urriak 20. Astrabudua - Josu Murueta 17:30
Ama, aita, euskara koloreztatu! Solasaldia + Tailerra
Saio berezia, umeek nagusiei euskara irakasteko ideiak landuko dira.
- Urriak 27. Altzagako ludoteka 17:30
Nerearen Musika jostailua
- Azaroak 3. Astrabudua - Josu Murueta 17:30
Eta gaur, zer jango dugu?
- Azaroak 10. Altzagako ludoteka 17:30
Pisti-plasta
- Azaroak 24. Altzagako ludoteka 17:30
Bazen behin...
- Abenduak 1. Astrabudua - Josu Murueta 17:30
Euskararen Musika
- Abenduak 15. Altzagako ludoteka 17:30
Gabonak

Eman izena zure seme-alabarekin www.erandiako.euskarazerbizua.eus T. 94.489.01.28

Logos: Sorpresa Inerlinea, EI, Bizkaia, etc.

MARINA GONZÁLEZ PRADA | «Txiki Baskardo» literatura-saria

«Afizioz egiten dut; ez nuen irabazteko asmoz idatzi»

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

Julio Caro Baroja (Getxo 1) institutuan ikasten du Marina González Prada algortarrak, DBHko bigarren mailan; 12 urte dauzka. Berak irabazi du «Txiki Baskardo» literatura-lehiaketa, izenbururik ez daukan arren, bere berbetan *Ahazten* dei daitekeen gaztelaniazko idazlanagaz; alzheimerra da istorioaren ardatz nagusia.

Nork animatu zintuen literatura-lehiaketan parte hartzera? Irakasleak esan zigun lehiaketa egingo zutela; hala ere, nik ez neukan parte hartzeko asmorik. Baina nire amak jakin badaiki, afizioz, istorioak idazten ditudala; sariketarena komentatu nionean, parte hartzeko, aukera ona izan zitekeela esan zidan.

Txikitatik gustatu zaizu idaztea? Bai. Baina, esan beharra dago familiak ere zerikusia izan duela horretan. Amak eta aitak asko irakurri dute, betidanik. Nire nebak, ordea, ez; sendian ni naiz literatura-zale «ofiziala».

Zergatik erabaki zenuen alzheimerren gaia hartzea? Istoria idazten hasteko, esaldi bat eman zidaten; andre zahar bat liburu bat bere etxean irakurtzen irudikatu nuen nik. Andreak kutxa batean aurkitutako txikitako egunkaria zen; bertan idazten segitzea erabakitzen du. Paragrafo bakoitzaren hasieran «gogoratzen dut» berbak ipintzen hasi nintzen; baina, pentsatu nuen: «Eta gogoratuko ez balu?, eta gogoratzeari utziko balio?». Istoria biribiltzeko, akabera hori ematea erabaki nuen; hunkigarria iruditu zitzaidan.

Alzheimer-gaixoren bat izan duzu familian? Ez. Hala ere, sendian halakorik eduki duen jendea ezagutzen dut. Bestalde, duela gutxi hil zen nire amama; istorio honegaz omenaldi txiki bat egin gura izan diot.



Idaztea atsegin duen arren, Marina Gonzálezek ez dauka horretaz bizitzeko asmorik. HODEI TORRES



Literatura-sariak

Fernando Palazuelos eta Nerea Balda izan dira Ramiro Pinilla 1. Eleberri Laburren Lehiaketako saridunak. Lehenengoak gaztelaniazko lanen saria irabazi du, eta bigarrenak euskarazkoena. Gainera, Marina González Prada gazteak Txiki Baskardo 1. Haur Kontakizunen Lehiaketa irabazi du. Ekimen horiek Getxoko Kultur Etxeak bultzatuta daude eta sormen literarioa bultzatzea eta Pinilla idazle getxotar ospetsuaren memoria babestea dauzkate helburu nagusiak.

Irabazteak idazten segitzeko gogoak ematen dizkizu? Egia esan behar badizut, ez nuen irabazteko asmoz idatzi; dibertigarria iruditu zitzaidalako aurkeztu nintzen. Pantailan nire izena ikusi nuenean ez nuen sinisten; amak esan zidan: «Irabazi egin duzu!». Orduan atera nintzen korrika; zeharo liluratuta nengoen. Izan ere, nire buruarentzat eta senideentzat idazten dut nik, eta besteek goza dezaten; inondik inora ez saririk irabazteko. Hala ere, ez dut baztertzen bestelako sariketaren batean parte hartzea, aukera ematen badidate. Bitartean, senideentzat zein nire buruarentzat idazten segituko dut.

Hemendik urte batzuetara idazteaz bizi ahal izatea gustatuko litzazuke? Ez daukat asmorik maila profesionalean honetan jarduteko, heldua naizenean. Beste plan batzuk dauzkat: musika-ikasketak egin gura ditut, eta neurri batean konposizioa eta idaztea antzekoak diren arren, aipatutako bidea jorratu nahi dut. Hala ere, ez dut inoiz idazketa bazterrean utziko.

Zer esango zenieke zure adineko neska-mutilei, idazten eta irakurtzen animatzeko? Idaztea bakoitzaren barrenetik sortzen den gauza bat da; irakurtzea beste kontu bat da, liluragarria da. Galduta sentitzen bazara edo momentu zehatz batean zer egin ez badakizu, liburu bat har ezazu. Mugitu barik, beste leku batzuetara bidaiatzeko aukera izango duzu. Eta, batek daki. Egunen batean zeure mundua asmatzeko aukera edukiko duzu. ◀

Uribe Kostako AEK EMAN IZENA!

Leioa · 944 64 60 63 · lamia@aek.eus
Getxo · 944 30 47 34 · lauaxeta@aek.eus
Plentzia · 946 77 36 07 · jentilbaso@aek.eus
Gorliz · 946 77 36 46 · jentilbaso@aek.eus

www.aek.eus/blogak/uribekosta
www.facebook.com/uribekostako.aek



Zu hemen zaude, AEK ere bai

100 euskaltegi baino gehiago Euskal Herri osoan



EUSKARA-IKASTAROAK

MIKEL BILDOSOLA AGIRREGOMEZKORTA | Igerilaria

«Igeriketa kirol oso gogorra da, ordu gehiegi egiten dira»

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Mikel Bildosola igerilari algortarra Europako txapel-dun berria da 100 metroko estilo librean, 35 eta 39 urte bitarteko master-mailan. Oporren akabuan egin du Esloveniako Kranj hirian lehiatutako Igeriketa Txapelketaren balorazioa.

Lau domina lortu dituzu Europako Igeriketa Txapelketan. Zein duzu gogokoen? Azkena, irabazi nuena: ehun metro crawl edo estilo librean. Iaz munduko txapeldun geratu nintzen proba horretan; aurtengo txapelketari begira prestakuntza *serioa* egin genuen uztaileko, Espainiako txapelketarako. Munduko errekor batzuk hobetzen ahalegindu ginen, eta lortu genituen. Hortaz, irailean apur bat sasotik kanpo nenbilen. Nahiz eta goi-mailan igeri egin, dominak ateratzea ez da erraza. Eslovenian maila ona eman nuen baina ez nengoen sasoiaren eta hainbat teknika-hutsegite izan nuen. Berbarako, heldueran txarto ibili nintzen azken metroetan: zortea ez zegoen nire alde. Estilo libreko 50etan zilarrezkoa atera nuen; eta brontzea, tximeleta-ko 50etan, urrezko dominatik bederatzi ehunenera geratu nintzela. Besteak beste helduera txarto egiteagatik izan zen hori, proba bietan aurretik ibili ostean. Erabaki txarregatik batean egin nuen hirugarren eta bestean bigarren. Pentsatu izan nuen: aurtengo nahiz eta ondo igeri egin, zortea ez dago nire alde eta horregatik azkenengo proban agian tentsio handia izan nuen, ikusi nuelako irabaz nezakeela. Egin nuen yoga moduko bat, irudikatu nuen zelan egin: nola heldu, nekatuta egon arren, paperaren gaineko azterketetan bezala planteatu nuen, egin behar nuela hau, hori eta hura, gidoitik atera barik. Oso ondo atera zitzaidan, marka ona baino hobea izan zen, eta irabazi nuen. Horregatik izan zen nire gustukoena, tentsioagatik.

Halere, zure modalitaterik gustukoena 50 metro libreena da, ezta? Bai, nire entrenamendu motagatik eta fisiologiagatik hori da nire probarik egokiena eta aldi berean gogokoen duda-



Futbola utzi eta igeriketan hasteko gomendatzen du Bildosolak. HODEI TORRES



GETXO IGERIKETA BOLUE

Klubean, gazteei eta «zaharrei» begira

Getxo Igeriketa Bolue kirol-elkartean ere gazteak prestatzen dabil Bildosola, aholkulari, kontu teknikoetan hobetzeko. «Entrenatzaileak berba egiten dut eta egiten ditugu campus moduko batzuk; bertan grabaketakaz ikusten dituzte hobetu beharrekoak», azaldu du algortarrak. «Igeriketa oso kirol gogorra da; ordu gehiegi egiten dira eta batzuetan ez da teknika zaintzen, eta uste dut garrantzitsua dela»; horretan ahalegintzen da bera. Bestalde, klubeko master-sailaz arduratzen da, alegia, «zaharren taldea» berak daroa: «Nik entrenatzen ditut, musu-truk, eurakaz batzen naiz, nire ikuspuntua ematen diet eta jendea pozik dago», laburbildu du.

na. Berbarako, uztailleko Espainiako txapelketan oso ondo atera zitzaidan proba hori, munduko errekorra hobetu nuenean, eta Kranjen maila jaitsi eta apur bat astiroago egin nuen. Horrek eroan ninduen zilarrezko domina jasotzera. Agian estrategikoki ez nuen ondo planteatu eta horregatik ez zitzaidan hain ondo atera. Baina nire probarik onena, normalean, 50 metroena da. Teorikoki, gutxienez; estrategikoki, ikusi da ezetz.

Igeriketaz bizi daiteke, Europako txapelduna izanda? Kirolari modura, inondik inora ez, hemen ez dago profesionalismorik. AEBetan badaukate plan moduko bat gazteentzat: AEB mailako emaitza onak lortuz gero, proiektu batzuetara bideratzen dituzte igerilariak, unibertsitatea ordaintzen diete eta abar, baina halere, gaur egun bizitzeko aukera gutxi batzuek baino ez dute han, igeriketako munstro izatekotan. Hori, han; hemen ezta pentsatu ere, zail baino zailago dago, ez dago aukerarik.

Zuk zertan egiten duzu behar? Batxilergoa amaitu ondoren zer edo zer egin behar denez, Ekonomia ikasi nuen eta lizentziatu nintzen. Baina betidanik izan dut gogoko igeriketa eta ikusi nuen aukera mundu horretan sartzeko, eskolak ematen. Gero- ra eskaini zidaten lana Usansolon, igerileku batean, eta hara joan nintzen beharrera, diru gutxiago kobratuta, baina psikologikoki askoz hobeto bizi nintzen. Bertan urte bi eman nituen, Faduran beharrean hasi arte, monitore-lanetan; aurtengo izango da nire hamargarren urtea Faduran. ◀

JUAN MARI

Harategia Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

Itñaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3 Algorta Telletxe 1
94 430 23 45 94 460 27 41

EMAKUMEA ETA EUSKAL PILOTA | Erakusketa Plentzian

Andrazkoen ekarpenari gorazarre

Datorren urriaren 28ra arte, *Emakumea eta euskal pilota* erakusketa ikus daiteke Plentziako Goñi Portal kultur etxean. Gernikako Euskal Herria Museoak sortu zuen 2013an, euskal pilotaren historiatik ezabatuta egon diren emakumeen parte-hartzea eta ekarpena berreskuratzeko asmoz.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Plentzian astelehenetik barikura bisita daiteke erakusketa, 11:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara. Goñi Portaleko erakustaldiak bost atal ditu: sakea, tanteoa, kantxa, kontrakantxa eta hemen eta orain. *Emakumea eta euskal pilota*-ren historia kontatzeko zenbait objektu daude ikusgai, berbarako: erraketak, pilotak, erraketisten jantziak, argazkiak, kontratuak, kartelak eta egunkari-zatiak. Horiek denek, bideoek, ukitzeko pantailek eta informazio-panelek ematen dute zestalari, pilotari, palari eta, batez ere, erraketistek munduko kantxetan izan zuten presentziaren, arrakastaren eta oihartzunaren berri.

SENDIEN EKARPENA. Emakume erraketistek eta euren familiek dohaintzan emandako elementuek osatzen dute erakusketa: prentsa bat pilotetarako, karamukoak eta hariak, erraketisten jantziak eta Mercedes de Miguelen bozetoak, *Life* aldizkariaren argazkiak, garaikurrak eta oroitzeko plakak, bildumetako



Erakutsi eta ikertzeko

Erakusketan erabilitako material denak funts dokumental eta museografiko baten parte dira. Gernikako Euskal Herria Museoan gordeta dago funts hori, eta ikertzaileen eskura dago, etorkizuneko azterlanetarako.

kromoak, eleberri bat, prentsa-artikuluak... Atal bakoitzean, hainbat tresna eta testigantzen bidez, ahaztutako pilotari eta erraketistek XX. mendean munduko kantxetan izandako presentzia gogora ekarri gura dute. Gernikako Euskal Herria Museoak sortzaileek zabaldu dutenez, «erakusketa honek omenaldia egin gura die pilota-jokoan, zesta-puntan eta erraketa-modalitatean, kirolari profesional moduan jardun zuten lehenengo emakumeei, eta areago eman gura ditu ezagutza». Izan ere, pilota sortu zenetik indar handia izan du Euskal Herrian, baina batez ere gizonakaz lotuta egon da. Hala eta guzti, emakumeek ere pilota jokoan aspaldidanik hartu dute parte, lorpen handienak erraketa-jokoan izan dituztela. Azpimarratzekoa da gainera, erraketista horiek izan zirela emakumezko kirolarien artean lehen profesionalak.

ERRAKETISTEN ARRAKASTA. Hirurogei urte baino gehiagoz (1917-1980) iraun zuen Espainian eta Ameriketako Estatu Batuetan erraketa-jokoak. Denbora-tarte horretan hainbat aldaketa egin ziren: pilotan, erraketetan, janzkeran... Garai hartan, euskal erraketistak onenak eta ugarienak izan baziren ere, Valentzia, Logroño, Madril, Bartzelona eta Mexikoko jokalariek eurakaz jardun zuten, besteak beste. Erraketa-jokoak, beste kirol batzuek bezala, kultura nabarmena sortu zuen inguruan.

Garaiko egunkariak emakume erraketisten entzutea eta abilezia islatu zuten, baita *El Pelotari* aldizkariak ere. Literaturak, zinemak eta telebistak ere jaso zuten erraketista eurenganako eta euren munduarenganako interesa. ◀

★

BANDEN LEHIA

2018

★

10

URTE

★

TALDE BATEAN JOTZEN DUZU?

Aurten zure ametsak betetzeko aukera izango duzu!

MUNDIALA IZANGO DA!

PARTE HARTU!


Eman izena: irailak 26 - urriak 26

www.bandenlehia.eus

GORLIZ | Urte biko ikasleen garraioa

Eskola-autobusera igo ezin duten umeengatik, protesta

Gorlizko ikastetxeko 50 bat gurasok eta hainbat umek elkarretaratzea egin zuten joan den eguaztenean, irailaren 26an, eskolako atean. Guraso horiek mobilizatzea erabaki dute, ikastetxeko autobusera igo ezin duten urte biko sei umeen egoera konpontzeko. 2015ean eskola-garraioaren segurtasun-neurriak handitu zituen Eusko Jaurlaritzako dekretu batek, bereziki 3 urtetik beherako umeen kasuan. Hiru urtean, Gobernuak ez du praktikan lege-testua betearazi orain dela egun batzuk arte, behin ikasturtea hasita.



PLENTZIA | Ume-eskola

Ikasturte berriari hasiera eman baino lehen Haurreskola barrutik margotu dela jakinarazi du Plentziako Udalak. Lanok 2.286,9 euroko kostua izan dute.

PLENTZIA | Arte kale jaialdia



Hamaika ekitaldiz gozatzeko parada izan zuten hilaren 22an artea kalera ateratzeko jaietan.

ERANDIO | Kukularrako lotunea

Aldundiak Kukularrako lotunea egokitze proiektuaren bigarren fasea esleitu du. N-637 errepideko lotunean trafikoa arintzea da horren helburua.

SOPELA | Zentsuraren Aurkako Eguna

Hondartzan muralak egin eta Mozal Legea aplikatuz isunak ipini dizkietela salatu dute hainbatek. Ekitaldia egingo dute zapatuan, Larrabasterran.

URIBE KOSTA | Bizkaiko Bertsolari Txapelketa

Urriaren 6an abiatuko da norgehiagoka, Gernika-Lumon

Lehenengo saioan Imanol Uria algortarrak eta Paule Ixiar Loizaga sopoloztarrak parte hartuko dute. Bost kanporaketa jokatu ostean (horietako bat Plentzian, urriaren 28an), hiru finalaurrekoak eta finala etorriko dira.

URIBE KOSTA | Eskualdeko errepresaliatu politikoen aldeko mobilizazioa

Presoen aldeko ekimenak 400 pertsona baino gehiago batu ditu

Mobilizazioan 425 lagun inguruk parte hartu zuten domekan, hilaren 23an, Kalera Kalera ekimenaren esanetan. «Garaia da gatazkaren konponbidean urratsak emateko eta errepresaliatu guztiak etxera bueltatzeko», adierazi zuten.



AINGARA



BORDATUAK EUSKAL JANTZIAK

Aurrezki Kutxa, 18 | 944 038 953
48930 Erromo · GETXO | bordadosaingara.com



Ebaki bonu hau eta %10eko deskontua izango duzu gure produktuetan*

*bordatuak eskaintzatik kanpo
*bonua ebaki eta dendan aurkeztu

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a - 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Publizitatea: Idoia Lorente
Erredakzio-burua: Unai Brea
Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena
Argazkiak: Hodei Torres
Diseinua: Artefakto
Kudeaketa: Ziortza Merino, Idoia Ibarluzea
Kolaboratzaileak: Alazne Palacios, Kerman Santiago, Asier Barruetabeña
Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
Ale-kopurua: 8.000
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

HIRUKAlagunen txokoa

Non dago? Lehiaketa

Getxoko Kultur Etxearen ekimenez, 26. Antzerki Jardunaldiez gozatzeko sarrera bikoitzak zozkatuko ditugu

Getxoko 26. Antzerki Jardunaldietako emanaldiez gozatzeko sarrera bikoitza lortu gura baduzu, urriaren 3a (eguztana) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.



Iraileko saria



Bi lagunentzako gosaria, Owl Coffee House komertzioaren ekimenez

Sopelako komertzioari esker, sari hori zozkatuko dugu HIRUKAlagun eta bazkide denen artean.

Zozketan parte hartzeko, bidali irailaren 30a (domeka) baino lehenago, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna

Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus

Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko soilik. Erabiltzaileak datuok zuzentzeko edo kentzeko helbide honetara idatzi dezake: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

4	1				5	9		
	5	6				4		1
7		2	8					
						7	9	
2		1						6
	6		1				4	8
		4						
	2		4	5		7		
6				2				

					1	6		
	1	3	4	5				
2								
1	2					4		
	5	4		8		2		6
		8	7					
					3			
9		1	8					
	4		2			7		

Soluzioak

Gogoan har egizu
1etik 9ra arteko
zenbaki denek
agertu behar
dutela zutabe,
ilara eta azpilauki
bakoitzean.

3	6	7	5	1	2	9	4	8
2	9	5	7	4	8	1	3	6
1	8	4	3	9	6	2	7	5
6	5	1	4	2	7	8	9	3
9	3	2	6	8	1	4	5	7
7	4	8	9	3	5	6	2	1
4	1	3	8	7	9	5	6	2
8	7	6	2	5	4	3	1	9
5	1	6	2	5	9	3	7	4

4	1	5	6	2	3	7	8	9
3	9	6	7	8	5	4	6	2
2	6	8	9	1	7	4	3	5
8	4	2	3	7	1	5	9	6
9	5	3	4	8	6	1	7	2
6	7	1	2	9	5	3	4	8
5	3	6	1	4	8	2	7	9
1	8	4	7	6	2	9	5	3
7	2	7	5	3	6	9	8	4

Hitza emanda

Turismoa

Gure txokoetara
dator jende pila:
mundu global honetan
berezko gurrpila.
Turismo jasangarri
hobe baten bila,
lekuen izaera
babestu dadila!



**ARKAITZ
GOMEZ
AGIRRE**
Getxo



Flashback **Leioako Txikiteroak** 2000. urtea

UNAI BREA ▶

Leioa, 1984. Lehenengoz, Santa Agedako koplak kantatzera irten zen Udondo tabernan elkartzen zen lagun-talde bat. Gerora Leioako Txikiteroak izena hartu zuten, eta gaur egun inguru osoan ezagun dira haien ahotsak. CD bat ere grabatuko dute datorren hilean! Argazkian, 2000. urteko Santa Ageda bezperan. ◀

ARGAZKIAN:

Goiko lerroan, ezkerretik eskumara: 1 Juan Miguel Fresnedo 2 Tomas Revilla 3 Pedro Latorre 4 Fernando Peñalver 5 [?] 6 Jabi Unceta [†] 7 Andres Bilbao 8 Restituto Gomez 9 Jose Luis Aurrekoetxea [†] 10 Juan Agustin Zarraga [†] 11 Segundo Zulueta 12 Ignacio Ayo 13 Jose Mari Picado 14 Eneko Martin.

Erdiko lerroan: 15 Juan Arechavaleta [†] 16 Jose Antonio Marqués [†] 17 Agustin Barcena 18 Pedro Pina 19 Jose Antonio Llantada 20 Jose Antonio Learra 21 Juan Ormaetxea 22 Ane Serrano 23 Goio Nuñez 24 Victor Fernandez 25 Jose Luis Itxaso 26 Pedro de Miguel 27 Iñigo ??? 28 Loli Casamayor.

Beheko lerroan: 29 Juan Mari Andikoetxea [†] 30 Iñaki Iñoriza [†] 31 Juan Francisco Arechavaleta 32 Javi Arteche 33 Emilio Urreta 34 Luis Mari Bilbao 35 Pascual Casamayor 36 Txetxu Martin [†].



ANDRES BILBAOK UTZITAKO ARGAZKIA

Uribitakora



ALBE

Algortako
Bertsolari
Eskola

TESTUA
Aitor Fernandez
de Martikorena
Rodriguez

DOINUA
Amodioa gauza tristea

ARGAZKIA
Hodei Torres

Liburuak

Aspaldi baten egin nuen nik
liburuekin tratua:
janzten nautenez, horren trukean
naukate aliatua.
Eta horrela, badut etxean
mordo handia pilatua;
kale gorrian zurtz amaitzea
ez dute izango patua.
Ondoan izango ditut beti,
beteko dut nire hautua.

Eduki arren ehunka orri,
ez dira, ez, ipuruak;
eduki arren milaka ideia,
ez dira, noski, buruak;
burmuinik ez badaukate ere,
badituzte aburuak...
Guregan usu sortzen dituzte
barre eta zizpuruak.
Ene ustean, lagun min-minak
dituzkegu liburuak.

Liburu batek ez dizu egingo
ezelako engainurik;
zain egongo da, zuk hartu arte,
apalean agondurik.
Gura ez baduzu, ez du izango
traba egiteko modurik;
zabaldut ezean, egongo zaizu
geldirik eta muturik.
Beraz, begien bistakoa da
badutela bertuterik.